

SARRERA ETA HELBURUAK

Udako Kirol Campusa 10 eta 14 urte bitarteko haurrek gehien gustatzen zaiena eginez oporrez ahalik eta gehien gozatzeko pentsatuta dago: jolastea, mugitzea, kirola egitea eta lagunekin denbora pasatzea. Egun bakoitza abentura desberdin bat izatea nahi dugu, jolasez, erronkaz, talde-lanaz eta, batez ere, barre ugariz betea. Horregatik, campus hau ez da denbora libre betetzeko modu bat soilik, baizik eta dibertsioa, kirola eta hazkunde pertsonala nahasten diren esperientzia bat.

Kirola egitearen bidez, lagunartea, ahalegina, norbere burua gaitzitzea eta errespetua bezalako balioak sustatu nahi ditugu, ingurune seguru, dinamiko eta dibertigarri batean.

Proiektu honek jarduera ludiko bat baino askoz gehiago izan nahi du: aukera bat da parte hartzen duten gazteek trebetasun fisikoak, sozialak eta emozionalak garatzeko kirolaz gozatzen duten bitartean eta lagun berriak egiten dituzten bitartean. Este proyecto pretende ser mucho más que una actividad lúdica: es una oportunidad para que los jóvenes participantes desarrollen habilidades físicas, sociales y emocionales mientras disfrutan del deporte y hacen nuevos amigos.

Begirale talde espezializatua, instalazio egokiak eta adin eta maila desberdinetara egokitutako askotariko programa izanen ditugu, bertaratutako guztien ikaskuntza, dibertsioa eta ongizatea bermatzen dituen. Gainera, dena giro seguru eta motibatzailean garatzen dela ziurtatuko dugu, non haur bakoitza baloratua sentitzen den eta taldearen zati bat.

JARDUERAK MOTAK

Jarduerak bi multzo handitan antolatzen ditugu. Alde batetik, hazkunde pertsonalean, sormenean eta laguntasunean oinarritutako dinamikak eta jolasak egingen ditugu, non hurrek taldean lan egiten, adierazten eta elkarrekin dibertitzen ikasiko duten.

Eta, bestetik, kirol-saio aktiboagoak izanen ditugu, trebetasun fisikoak hobetzeko, kirolak ezagutzeko eta mugimenduaz gozatzeko pentsatuak, giro motibatzaile eta osasungarri batean.

Horrela, garapen pertsonala eta jarduera fisikoa uztartzen ditugu, esperientzia osoa eta orekatua eskainiz.

1. BLOKEA:

- **Aurkezteko jolasak:**

Parte-hartzaileek elkar ezagutzeko, harremana bultzatzeko izotza apurtzeko eta hasieratik konfiantzazko giroa sortzeko pentsatutako jarduerak dira. Izenak, dinamika dibertigarriak eta guztien parte-hartzea izaten dituzte.

- **Kooperazio jolasak:**

Talde-lana dute ardatz, eta denek laguntzen badute bakarrik lortzen da helburua. Komunikazioa, errespetua eta elkarrekiko laguntza sustatzen laguntzen dute.

- **Zentzumen jolasak:**

Zentzumenak estimulatzeko dituzte (ikusmena, entzumena, ukimena, usaimena eta dastamena), pertzepzioa eta arreta pizten duten jardueren bidez. Jarduera horiek ezin hobeak dira gorputz-kontzientzia garatzeko eta ingurunea aztertzeko.

- **Musika jolasak:**

Erritmoa, musika eta askotan mugimendua sartzen dira. Ezin hobeak dira koordinazioa, adierazpena eta erritmoaren zentzua hobetzeko, eta, gainera, giro animatua eta parte-hartzailea sortzen dute.

- **Gorputz adierazpeneko jolasak:**

Emozioak, ideiak edo istorioak gorputzaren bidez komunikatzean oinarritzen dira, hitzen beharrik gabe. Sormena, autoestimua eta besteekiko lotura garatzen dituzte.

2. BLOKEA:

- **Objektuak behar dituzten kirolak:**

Jolasteko objektuak edo erremintak behar dituztenak dira, hala nola erraketak, makilak, pilotak edo bastoiak, adibiderako, tenisa, hockeya edo badminton.

- **Taldeko kirolak:**

Jarduera horien kasuan, talde baten barruan lehiatzen da, eta lankidetzak eta estrategia komuna funtsezkoak dira; esaterako, futbola, saskibaloia edo boleibola.

- **Banaka edo binakako kirolak:**

Kirol horietan, bakarrik edo beste norbaitekin lehiatzen da, talde handi batean parte hartu gabe, hala nola, atletismoa, bikote-tenisa edo padel-a. Errendimendu pertsonala edo lankide bakarrarekiko koordinazioa dira ardatz.

PROGRAMAZIOA ETA KRONOGRAMA

ASTELEHENA:

09:00 - 09:05	Haurren iristea
09:10 - 11:00	Aurkezteko jolasak
11:00 - 11:30	HAMAIKETAKOA
11:30 - 12:50	Kirol jolasak. Objektuak behar dituzten kirolak (I)
13:00 - 13:50	Igerilekua
13:50 - 14:00	Materialaren biltzea
14:00	Haurren ateratzea

ASTEARTEA:

09:00 - 09:05	Haurren iristea
09:10 - 11:00	Kooperazio jolasak
11:00 - 11:30	HAMAIKETAKOA
11:30 - 12:50	Kirol jolasak: Taldekako kirolak (I)
13:00 - 13:50	Igerilekua
13:50 - 14:00	Materialaren biltzea
14:00	Haurren ateratzea

ASTEAZKENA:

09:00 - 09:05	Haurren iristea
09:10 - 11:00	Zentzumen jolasak
11:00 - 11:30	HAMAIKETAKOA
11:30 - 12:50	Kirol jolasak: banaka/binakako kirolak
13:00 - 13:50	Igerilekua
13:50 - 14:00	Materialaren biltzea

14:00	Haurren ateratzea
-------	-------------------

OSTEGUNA:

09:00 - 09:05	Haurren iristea
09:10 - 11:00	Musika jolasak
11:00 - 11:30	HAMAIKETAKOA
11:30 - 12:50	Kirol jolasak: Objektuak behar dituzten kirolak (II)
13:00 - 13:50	Igerilekua
13:50 - 14:00	Materialaren biltzea
14:00	Haurren ateratzea

OSTIRALA:

09:00 - 09:05	Haurren iristea
09:10 - 11:00	Gorputz adierazpenen jolasak
11:00 - 11:30	HAMAIKETAKOA
11:30 - 12:50	Kirol jolasak: Taldekako kirolak (II)
13:00 - 13:50	Igerilekua
13:50 - 14:00	Materialaren biltzea
14:00	Haurren ateratzea